



Anarkista baten ezusteko heriotza, Darío Fo

EROA: Zure baimenarekin, inspektore. Ez zaitez haserretu, nire dokumentazioaren bila nator, ez da besterik. Hara, inor ez dago eta! Primeran, neuk hartuko dut. Historia klinikoa, errezeta-taloitegia... Hara, salaketa. Hautsi egingo dut, eta kito. Ez dadila inor mugitu, justizia iritsi da eta. Eta salaketa hau norena da? “Lapurreta astungarriekin” Ba! Ezertxo ere ez, aske zaude. “Bidegabeko jabetzea”. Huskeria. Ene, ur handiko arrainak: faltsutzea, desfalkua, prebarikazioa, influentzia-trafikoa, isilpeko fondoak... Zuek hementxe geratuko zarete, azpisuge alaenak. (*Telefonoak jotzen du*) Bertozzo inspektorearen bulegoa. Plazer handia da zurekin hitz egitea. Nor zara? Ez, ez, sentitzen dut, baina, nor zaren esan gabe, ez zaizu jarriko. Nor? Zu zeu? Bertozzo, “leiho”-inspektorea da. Nola ni nor naizen? Entzun duzu, Bertozzo? Ezkertiarren borrarera galdetzen ari zait ni nor naizen. Egia esan, ez naiz zu bezain ospetsua, nik ez ditudalako botatzen neure zereginak leihotik behera. Ez al dakizu nor naizen? Asmatzen ez baduzu, ez zaitut Bertozzorekin jarriko. Nor naiz? Ez. Ez. Ezta ere. Anghiari? (*Bere buruari*). Anghiari naiz? Bai, horixe bera, Pietro Anghiari komisarioa, oso ondo. Zer egiten dudan Milanen? Aizu, zergatik ez didazu esaten zer nahi duzun Bertozzorengandik? Ez, orain ezin du hitz egin. Esadazu niri. A, anarkistaren kasua. Nola, goragoko epailea bidali behar dutela? Ikuskatzaile moduko bat. Ministerioan ez datozela bat epaileak kasua artxibatzeko eman dituen argudioekin. Ministerioko horiek izugarriak dira: aurrena komeni zaie, eta gero atzera egiten dute... Nola, iritzi publikoa presioa egiten ari dela? Baina, ze presio egingo du, gizona? Ja, ja, ja. Bai, Bertozzo da, barrez lehertzen ari da. (*Telefonoa urrunduta barre egiten du*). O, eta keinu batzuk egiten ari da! Bertozzok dio berak lasai asko barre egin dezakeela zerikusirik ez duelako, baina komisarioa eta zu kakaz lepo eginda zaudete, gero! Ja, ja! Kontu handiz garbitzeko esaten ari zait. (*Puzkerra egiten du ahoarekin*) Prrrr! Bai, bera izan da, puzkerra bota du. Etzazu horrela hartu, gizona, ihes egingo zion. Ikus dezagun. Zer nahi duzu? Dokumentu batzuk? Beheko kaxoian daudenak. Bai, bai, anarkistaren heriotza artxibatzeko aginduaren kopia bat, zuen deklarazioen kopiak eta galdeketak. Bai, bai, oraintxe bidaliko dizkizuet. Aizu, ba, prestatzen hastea duzue, jakintzazu nolakoa den epaile hori. Izenik ba al dakizu? Marco Maria Malipiero. (*Idatzi egiten du*). Eta Kasazio Auzitegiko lehen kontseilaria da. Ederra oparixoa! Horixe ezagutzen dudala, zorrotza gizona! Aizu, besarkada bat! Itxaron, itxaron. Ja, ja, ja! Bertozzo da, oso gauza xelebrea esan du. Haserretzen ez bazara, kontatuko dizut. Oso ondo: ba, esan du epailearen bisitaldia amaituta Hegoaldera bidaliko zaituztela, Calabria-ra, han sotoan dutelako inspektorearen bulegoa! Ja, ja, ja! Harrapatu duzu? Sotoan! Ez al zaizu gustatu? Tira, zer egingo diogu, ba. Ados. Bertozzo, lurpeko inspektore izango denak, ikusi orduko, sekulako muturrekoa emango omen dizu. Aizu, bera jarriko zaizu. Prrrr! (*Puzkerra*) Gure maitasun guztiarekin. Agur! (*Telefonoa eseki eta bila hasten da*).